



Eusko Jaurlaritzak finantzatuko dituen 7.000 lanpostu berrietako batzuk gizarteratzeko enpresetan sortuko dira

+Euskadi 2009 krisiaren aurkako planaren barne kokatzen den programak 63 milioi euro bideratuko ditu diru-laguntzarik jasotzen ez duten langabetuentzat eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonentzat enplegua sortzeko.

Danobat Railway Systems-ek trenen ardatz muntatuak fabrikatzeko munduko linea aurreratuena aurkeztu du

Kooperatibak eraikin berria inauguratu du, gainera, eta apustu indartsua egin du horrela munduko enpresa liderren artean kokatzeko trenbidearen eta balio erantsiko ingeniarietza zerbitzuen sektoreetan, makinaren hornikuntzaren eta "eskuan giltza" ekoizpen lerroen arloetan.

ASLEko hainbat enpresak Barnetegi Teknologiko batean parte hartu zuten

Euskadiko Elkarte Laboralen Taldeko bazkide diren 12 enpresetako kudeatzaileek euren esperientzia eta ezagutzak partekatu zituzten, eta organizazioaren eguneroko lana eta bideragarritasuna hobetzen duten teknikak eta tresnak ezagutu zituzten.

Ikus-entzun kooperatibak Euskadin sendotzea lortu du bere megafonia digitaleko instalazioekin

Kooperatiba gipuzkoarrak norabidearen kontrol digitala barneratzen duen megafonia sistema berritzaile bat garatu du. Horri esker entzuleengana bideratu daiteke soinua zuzenean eta soinuztapena hobetzen da akustika konplexua duten lekuetan.



230 enpresa eta 330 lanpostu berri Gaztempresari esker

Euskadiko Kutzaren gizarte proiektuak 5,5 milioi euroko inbertsioa egin du enpresa hauek sortzeko. Horietatik %87a zerbitzuen sektorean arituko da, eta geratzen den %13ak merkataritzara zuzenduko du bere jarduerara.



Hamar konpainia euskaldunek enpresa elkarte berri bat sortu dute Ampo kooperatibaren gidaritzapean

Kudeaketan aditua den Koldo Saratxagak bultzatutako Gbe-Ner irabazi asmorik gabeko taldea pertsonengan zentratutako enpresa eredu bezala sortu da. Gizartearekin lotura izango du giza garapen iraunkorra sustatuko duten proiektuen bitartez.



[Urkaiko kooperativa berriak haragiaren merkaturatzea indartuko du Euskadin](#)

Urkaiko hiltegiaren eta Gureko behi-azienda komertzializatzailearen fusiotik sortutako sozietateak 9 milioi euro fakturatuko ditu urtero, eta 600 bazkide, 40 bat langile eta 1,2 milioi euroko fondo propioak ditu.



[Ipar Kutzak 10 milioiko etekina lortu du iraila arte, berankortasuna kontrolpean mantenduz, %2,24an](#)

Entitateak hiru bulego berri inauguratu ditu aurten Tolosa, Donostia eta Hernanin, eta beste bi irekitzea aurrekusi du Eibarren eta Beasainen, Gipuzkoan barna hedatzeko abiarazi duen planari jarraiki.



[Arabako Udapa kooperatibak beren eredia aurkeztu zuten Norvegiako nekazari eta kooperatibisten aurrean](#)

Bileran Udapako gerentea Roberto Ruíz de Infantek, euskal kooperatiba honen adibidea azaldu die norbegiarrei eta produktuei balore gehigarria eman diezaiokeela azaldu die.



[Forokoop-ek antolatutako autoeraketari buruzko mintegiak burujabetasunean oinarritutako erakunde anitz bildu zituen](#)

Jardunaldian parte hartu zuten entitateak oso eremu ezberdinetakoak ziren -industria, hezkuntza, finantza, gizarte eta kultur arloetakoak-, eta nahasketa berezi horrek oso esperientzia aberasgarria ekarri zuen.



[Hegoaren XV. Jardunaldiek krisiaren eta kapitalismoaren inguruko gogoeta bultzatu zuten](#)

Ekonomiako hainbat adituk sektore akademikoek eta mugimendu sozialek egungo sistemaren aurrean proposatzen dituzten alternatibak eztabaidatu zituzten.

[Mondragon Assembly konpainiak dibertsifikazioa eta internalizazioa bultzatuko ditu](#)

Enpresa gipuzkoarrak ugaritu egingo du bere eguzkitako eta medikuntzako eskaintza eta baita kosmetikako produktu berriak ere 2009-2010 epealdian. Azken urteotan barneratu ditu arlo horiek izatez sektore tradizionalei zuzendutako lanak egiten dituen konpainiak.

[Ondoa kooperatibak Iberdrola Dorrearen instalazio mekanikoak ezarriko ditu](#)

Konpainia elektrikoak Bilbon izango duen egoitza korporatibo berria Euskal Herriko etxe orratz handiena izango da, 41 solairu eta 165 metroko altuerarekin eta 200 milioi eurotik gorako inbertsioarekin.

[Ona-Pres, S.Koop ontzigitzan, aeronautikan eta sektore eolikoan barneratu da](#)

Egun munduko itsasontzigitza militarreko enpresa garrantzitsuenetako batentzat prentsa bat diseinatzen eta eraikitzen ari den kooperatibak urtea positiboan ixtea espero du, momentu honetan 18 milioi euro inguruko eskaera-zorroa baitu.



[Orkli kooperatibak zoru erradiatzaile-freskagarria ezarriko du A energetikoarekin katalogatutako etxebizitza promozio batean](#)

Sabadelleko babes ofizialeko 188 etxebizitzatan burutuko den proiektuak sendotu egiten du enpresa gipuzkoarrak berrikuntza eta jasangarritasun irizpideak bereganatzeko duen konpromisoa, adierazi dutenaren arabera.

Azken orduko berriak:

Aldauri Fundazioa "II Premio Bilbao Norte-Sur" saria jaso du

Javier Galparsorok, Euskadiko Errefuxiatuen Laguntza Batzordeko Lehendakaria, eta Aldauri Fundazioak, Bilbao La Vieja, San Francisco eta Zabala hiriguneak berreskuratzeko lanetan diharduten talde ezberdinak barneratzen dituenak, Bilboko Udalak Berdintasun, Lankidetzeta eta Hiritarren Sailaren bitartez banatzen den Bilbao Norte-Sur bigarren saria jaso dute..

[Irakurtzen jarraitu](#)

Aurrerapasu garrantzitsua FIARE Kooperatibaren eraketarekin Banka Etikoan

Peru Sasiak (FIARE.ko Zuzendaria) une honen garrantzia azpimarratzen du.

[Irakurtzen jarraitu](#)